

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
ADMINISTRAZIOA

2

ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO
HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

179/2023 Foru Agindua, apirilaren 28koa, sub-holding egiturei ondaretasun eratorriaren araua sozietateen gaineko zergan eta ondarearen gaineko zergan aplikatzeari buruzko interpretazioa onesten duena.

Urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergarenak, 14. artikuluan zehazten du zer baldintza bete behar diren entitate bat ondare sozietatetzat hartu dadin, eta hauek dira:

a) Zergaldiko laurogeita hamar egunetan gutxienez, zergadunaren aktiboaren erdia baino gehiago baloreek osatua izatea edo jarduera ekonomikoei atxikita ez egotea.

b) Entitatearen kapitalean parte hartzen duten bazkideen edo boto eskubideak dituztenen gutxienez 100eko 75 honako hauek izatea: pertsona fisikoak, ondare sozietatetzat jotzen diren entitateak, edo pertsona fisiko eta entitate horiekin zergaren foru arauaren 42. artikuluan ezarritako eran loturik dauden beste entitate batzuk. Baldintza hori zergaldi osoan zehar bete behar da.

c) Entitatearen diru-sarreraren 100eko 80an gutxienez, errenta iturriak honako hauek izatea: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 63. artikuluan aipatutakoak; 14. artíkulu bereko 2. apartatuaren c) eta d) letretan aipatutako ondasunen ustiapenetik eratorritakoak; edo kapital propioak hiru-garrenei lagatzeagatik edo zerbitzuak emateagatik lortutako sarrerrei dagozkienak, baldin eta lagapen hartzailea zergadunari lotutako pertsona edo entitatea bada, foru arauaren 42. artikuluan ezarritako eran, betiere, eragiketa horiek entitateak dituen giza baliabideen eta materialen antolaketa bitartez burutzen ez bada eta baliabideok eragiketen neurrikoak badira.

Aipatutako 14. artikuluan 2. apartatuak, aurreko a) letran xedatutakoaren ondorioetarako, zenbait arau ezartzen ditu, eta horien arabera, baloreak eta jarduera ekonomikoei atxiki gabeko elementuak ez dira halakotzat konputatuko.

Zehazki, 14.2 artíkulu b) letran ezartzen den arauak ondaretasun eratorriaren aplikazioa saihestea du helburu. Arau horren arabera, baloreak eta elementuak ez dira konputatuko ez balore gisa ez jarduera ekonomikoei atxiki gabeko elementu gisa baldin eta horien eskurapen prezioa ez bada entitateak lortutako mozkin banatu gabeen zenbatekoa baino handiagoa (mozkinok jarduera ekonomikoen emaitza izan behar dira), urte horretan zein aurreko azken hamar urteetan lortutako mozkinen zenbatekoaren muga-rekin.

Ondorio horietarako, letra horrek jarduera ekonomikoetatik datozen mozkinekin parekatzen ditu bai 14.2 artíkulu horren a) letrako azken bi tartekietan aipatutako baloreetatik datozen dibidenduak eta bai partaidetzak eskualdatzean lortutako gainbalioak, baldin eta entitate partaidetuak lortutako sarreraren 100eko 80 gutxienez jarduera ekonomikoetatik baldin badatoz.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Orden Foral 179/2023, de 28 de abril, por la que se aprueba la interpretación en relación con la regla de la patrimonialidad sobrevenida en estructuras sub-holding, aplicable en el impuesto sobre sociedades y en el impuesto sobre el patrimonio.

El artículo 14 de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades determina los requisitos que deben cumplirse para que una entidad tenga la consideración de sociedad patrimonial, y son los siguientes:

a) Que, al menos durante noventa días del período impositivo, más de la mitad de su activo esté constituido por valores o no esté afecto a actividades económicas.

b) Que las y los socios que representen, al menos, el 75 por 100 de la participación en el capital o de los derechos de voto de la entidad, sean personas físicas, entidades que tengan la consideración de sociedades patrimoniales u otras entidades vinculadas con las citadas personas físicas o entidades en los términos establecidos en el artículo 42 de la norma foral del impuesto, debiendo cumplirse este requisito durante todo el período impositivo.

c) Que, al menos, el 80 por 100 de los ingresos de la entidad procedan de las fuentes de renta referidas en el artículo 63 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas; derivadas de la explotación de los bienes a que se refieren las c) y d) del apartado 2 del mismo artículo 14; o que se correspondan con ingresos derivados de la cesión a terceros de capitales propios o de prestaciones de servicios, cuando la o el cesionario o la o el destinatario sea una persona o entidad vinculada con la o el contribuyente en los términos establecidos en el artículo 42 de la norma foral, siempre que estas operaciones no se efectúen a través de la organización de medios personales y materiales de que disponga la entidad y resulten proporcionados para las mismas.

El apartado 2 del referido artículo 14, a efectos de lo dispuesto en la letra a) anterior, establece diversas reglas en atención a las cuales los valores y los elementos no afectos a actividades económicas no se computarán como tales.

En particular, la letra b) del artículo 14.2 regula la regla que obedece a evitar la institución de la patrimonialidad sobrevenida, que determina que no se computarán como valores ni como elementos no afectos a actividades económicas aquellos cuyo precio de adquisición no supere el importe de los beneficios no distribuidos obtenidos por la entidad, siempre que dichos beneficios provengan de la realización de actividades económicas, con el límite del importe de los beneficios obtenidos tanto en el propio año como en los últimos 10 años anteriores.

A estos efectos, asimila a los beneficios procedentes de actividades económicas los dividendos que procedan de los valores a que se refieren los dos últimos guiones de la letra a) del propio artículo 14.2, así como las plusvalías obtenidas en las transmisiones de estas participaciones, cuando los ingresos obtenidos por la entidad participada procedan, al menos en el 80 por 100, de la realización de actividades económicas.

Foru agindu honen xedea da aurreko paragrafoan adierazikoa interpretatzea. Esan beharra dago interpretazio hori egiten dela Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 14.2 artikuluko b) letran eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauaren 6. artikuluko azken bi paragrafoetan ondaretasun eratorriari buruz aurreikusitakoaren ondorioetarako ez beste ezertarako, eta ez die eragiten zerga araudian zehar antzeko izaeraz egon litezkeen beste kontzeptuei. Izan ere, antzeko kontzepturik egonez gero, kasuan kasuko erregulazioa errespetatu beharko da beti, eta hemen egiten den interpretazioa ez da kontzeptu horietara zabaldu behar.

Ondaretasun eratorriaren arauaren helburua da entitate bat ondare sozietatetzat ez hartzea, jarduera enpresarial bat egin eta, arrazoi koiuntural edo iragankorrak tarteko, haren balantzeko aktiboaren 100eko 50 baino gehiago baloreek edo jarduera ekonomikoei atxiki gabeko elementuek osatzen dutenean.

Helburu horrekin, eta sozietateen gaineko zergaren foru arauaren 14. artikuluan xedatutakoari jarraituz, aipatutako dibidenduak eta gainbalioak jarduera ekonomikoetatik eratorritako etekinekin parekatzeko, baldintza hauek bete behar dira:

a) Horien sorburu diren baloreek boto eskubideen 100eko 5 ematea gutxienez, edo 100eko 3 ematea sozietate partaidentuaren akzioek bigarren mailako merkatu antolatu batean kotizatzen badute.

b) Baloreak edukitzea partaidetza zuzentzeko eta kudeatzeko, betiere, baldin eta, horretarako, baliabide material eta pertsonalen antolaketa egokia badago, eta entitate partaidetuak, laurogeita hamar egunetan gutxienez, ez badu betetzen aktiboaren erdia baino gehiago balorez osatuta egoteko edo jarduera ekonomikoei atxikita ez egoteko baldintza.

c) Entitate partaidetuak lortutako diru-sarreraren 100eko 80, gutxienez, jarduera ekonomikoetatik etortzea.

Baldintza horiek betetzeari begira, arazoa sortzen da holding egitura bat sub-holding sozietateak sortuz garatzen denean. Horrelakoetan, dibidenduak entitate zergadunak zuzenean partaidentutako entitateek banatzen dituzte; entitate horiek enpresa jarduerarik egiten ez badute ere, aldi berean, parte hartzen dute partaidentzen eskualdaketatik sortutako dibidendu edo gainbalioen iturri diren beste entitate batzuetan, eta entitate zergadunak zeharkako partaidetza bat du horietan, eskatutako baldintzak betetzen dituen.

Bada, foru agindu honen bidez, ondaretasun eratorriaren araua interpretatzen da sub-holding egitura horiekin lotuta, horrelako egiturak kontuan hartu dituzten sozietate zergaren beste arlo batzuetan xedatutakoarekin bat etorriz.

Horrela, entitate bat mikroenpresa, enpresa txiki edo enpresa eraintzat jotzeko eta, bereziki, ustiapen ekonomiko bat egiteari buruzko betekizunen ondorioetarako, zergaren foru arauaren 13. artikuluko ulertzen du ustiapen ekonomiko bat egiten dela ekitaldiko diru-sarreraren gutxienez 100eko 85 enpresa edo lanbide jardueren garapenetik datorrenean (salbuespenak albavespenak). Diru-sarrera horien artean berariaz sartuta ageri dira beste entitate batzuen dibidenduak edo mozkin partaidetzak, baldin eta zergadunak zuzenean edo zeharkako partaidetza bat badu entitate horietan, partaidetza horrek artikuluko horretan exijitutako portzentajea eta antzintasuna betetzen baditu, eta aipatutako mozkinak eta entitateek gainerako baldintzak betetzen badituzte (besteak beste, ustiapen ekonomiko bat egitea, aipatutako artikuluan ezarritako terminoetan).

Esta orden foral tiene por objeto realizar una interpretación de lo referido en el párrafo anterior. Dicha interpretación se realiza a los exclusivos efectos de lo previsto en la letra b) del artículo 14.2 de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa y en los dos últimos párrafos del artículo 6. Cuatro de la Norma Foral 2/2018, de 11 de junio, del Impuesto sobre el Patrimonio, en relación con la patrimonialidad sobrevenida, sin perjuicio de otros conceptos similares que puedan existir a lo largo de la normativa tributaria, en los que deberá estarse, en cada momento, a lo regulado conforme a los preceptos correspondientes, sin que esta interpretación resulte extensible a los mismos.

La regla de la patrimonialidad sobrevenida tiene por finalidad evitar la consideración de una entidad como patrimonial cuando ésta realiza una actividad empresarial pero que por motivos coyunturales o transitorios su balance presenta un activo en el que más del 50 por 100 esté constituido por valores o elementos no afectos a actividades económicas.

Con esta finalidad y atendiendo a lo dispuesto en el artículo 14 de la norma foral del impuesto sobre sociedades, para que los mencionados dividendos y plusvalías se asimilen a los beneficios procedentes de actividades económicas, los requisitos requeridos son los siguientes:

a) Que provengan de valores que otorguen, al menos, el 5 por 100 de los derechos de voto, o el 3 por 100 si las acciones de la sociedad participada cotizan en un mercado secundario organizado.

b) Que los valores se posean con la finalidad de dirigir y gestionar la participación siempre que, a estos efectos, se disponga de la correspondiente organización de medios materiales y personales, y la entidad participada no cumpla con la condición de que al menos durante noventa días más de la mitad de su activo esté constituido por valores o no esté afecto a actividades económicas.

c) Que los ingresos obtenidos por la entidad participada procedan, al menos en el 80 por 100, de la realización de actividades económicas.

De cara al cumplimiento de estos requisitos el problema surge cuando una estructura holding se desarrolla procediendo a la creación de las llamadas sociedades sub-holding. Supuestos en los que los dividendos se reparten por las entidades participadas directamente por la entidad contribuyente, que no realizan actividades empresariales pero que participan, a su vez, en otras entidades de las que provienen los dividendos y/o las plusvalías por la transmisión de las participaciones, y en las que la entidad contribuyente tiene una participación indirecta que sí cumple con los requisitos requeridos.

Pues bien, a través de esta orden foral se interpreta la regla de la patrimonialidad sobrevenida en relación a estas estructuras sub-holding, en consonancia con lo establecido en otros ámbitos del impuesto sobre sociedades en los que estas estructuras sí han sido tenidas en cuenta.

Así, a efectos de los requisitos que deben cumplirse para que una entidad tenga la consideración de microempresa, pequeña o mediana empresa, y, en particular, que lleve a cabo una explotación económica, el artículo 13 de la norma foral del impuesto entiende que se realiza una explotación económica cuando, al menos, el 85 por 100 de los ingresos del ejercicio correspondan a rentas procedentes del desarrollo de actividades empresariales o profesionales, si bien con algunas salvedades. Entre dichos ingresos expresamente incluye los dividendos o participaciones en beneficios de otras entidades respecto de las cuales el contribuyente tenga una participación directa o indirecta que cumpla los requisitos de porcentaje y antigüedad que el propio artículo exige, cuando los referidos beneficios y entidades cumplan, a su vez, el resto de requisitos entre los que se encuentra el llevar a cabo una explotación económica en los términos definidos en dicho artículo.

Antzeko erregulazio bat aurreikusten da dibidenduetan eta mozkin partaidetzetan zergapetze bikoitza desagertzearen ondorioetarako. Izan ere, 33.1 artikulua dio dibidenduak edo mozkin partaidetzak ez direla zergadunaren zerga oinarrian sartuko, geroago zehazten dituen betekizunak betetzen badira. Baldintza horien artean aipatzekoa da, aztertzen ari garen kasurako duen interesagatik, honako hau: banatzen diren mozkinak edo partaidetutakoak enpresa jardueretatik etortzea, eta dibidendua banatzen duen entitateak ekitaldian lortutako diru-sarreraren gutxienez 100eko 85 enpresa jardueretatik datozen errentak izatea.

Eta diru-sarrera horiek konputatzeari dagokionez, barruan sartzen ditu bai beste entitate batzuen dibidenduak edo mozkin partaidetzak eta bai entitate horietako partaidetza eskualdatzetik eratorritako errentak, entitate horietan zergadunak zeharkako partaidetza badu eta ezarrita dauden baldintzak betetzen badira.

Illo beretik, gardentasun fiskalaren araubideari dagokionez, zergaren foru arauaren 48. artikulua salbuespen moduan ezartzen du zerga oinarrian ez direla sartuko edozein motatako entitateen funts propioetan parte hartzeagatik eta hirugarren batzuei kapital propioak lagatzeagatik eratorritako errentak, ezta balore horien eskualdatzeagatik eratorritakoak ere, errenta horien iturri diren entitateek artikuluan bertan ezarritako baldintzak betetzen badituzte partaidetzari, kudeaketari, zuzendaritzari eta sarrerei dagokionez. Diru-sarreraren baldintza horren inguruan, artikulua dio errentak lortzen dituzten entitateen diru-sarreraren 100eko 85k gutxienez, jarduera ekonomikoetatik etorri behar duela. Eta, ondorio horietarako, ulertzen du jarduera ekonomikoetatik datozela edozein motatako entitateen funts propioetan parte hartzeagatik eta hirugarren batzuei kapital propioak lagatzeagatik eratorritako errentak, bai eta balore horien eskualdaketatik eratorritakoak ere, betiere errenta horien sorburu diren entitateek ere baldintza berdinak betetzen badituzte bai zuzeneko edo zeharkako partaidetza dagokionez eta bai diru-sarrerei dagokionez.

Aurrekoa aintzat hartuta, egokia da interpretatzea ezen, 2/2014 Foru Arauaren 14.2 artikuluko b) letraren azken paragrafoko azken tarteak aurreikusitako betekizuna betetzen den ala ez zehazteko «(...) baldin eta partaidetutako entitateak lortutako diru-sarreraren 100eko 80, gutxienez, jarduera ekonomikoetatik datoz...», kontuan hartuko direla beste entitate batzuetako dibidenduak edo mozkin partaidetzak, baita partaidetzak eskualdatzean lortutako gainbalioak ere, baldin eta zergadunak zuzeneko edo zeharkako partaidetza bat badu entitate horietan eta b) letran ezarritako gainerako baldintzak betetzen badira, hori guztia ondaretasun eratorriaren arauaren ondorioetarako ez beste ezertarako.

Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, 11. artikuluko 3. apartatuan ezartzen duenez, Foru Aldundiaren eskumenen esparruan, zerga arloko foru arauak eta gainerako xedapenak interpretatu edo argitzeko xedapenak emateko ahalmena Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari dagokio soil-soilik.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT

Lehenengo. Interpretazio hau sozietateen gaineko zergan aplikatzeko egiten da, eta aplikagarria izango da, soil-soilik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 14.2 artikuluko b) letran aipatzen den ondaretasun eratorriaren arauaren ondorioetarako, eta, bereziki, dibidenduak eta gainbalioak jarduera ekonomikoetatik eratorritako mozkinekin parekatzeari dagokionez, letra horren azken paragrafoan aurreikusitako moduan, sub-holding egituren kasuan.

Bigarren. Orobat, interpretazio hau ondarearen gaineko zergan ere aplikatzeko egiten da, arau berberari dagokionez soil-soilik, bai entitateak salbuespenerako eskubidea duen aztertze-

Otra regulación similar se prevé a efectos de la eliminación de la doble imposición en dividendos y participaciones en beneficios, cuando el artículo 33.1 determina que no se integrarán en la base imponible de la o del contribuyente los dividendos o participaciones en beneficios siempre que se cumplan los requisitos y condiciones que seguidamente señala. Entre ellos, y por lo que aquí interesa, que los beneficios que se reparten o en los que se participa procedan de la realización de actividades empresariales, para lo que será imprescindible que, al menos el 85 por 100 de los ingresos del ejercicio de la entidad que reparte el dividendo correspondan a rentas provenientes de actividades empresariales.

Y al respecto de computar estos ingresos incluye también los dividendos o participaciones en beneficios de otras entidades, así como las rentas derivadas de la transmisión de la participación en dichas entidades, respecto de las cuales la o el contribuyente tenga una participación indirecta, siempre que se cumplan los requisitos que especifica.

En el mismo sentido, en cuanto al régimen de la transparencia fiscal, el artículo 48 de la norma foral del impuesto establece la salvedad de la inclusión en la base imponible de las rentas procedentes de la participación en fondos propios de cualquier tipo de entidad y cesión a terceros de capitales propios, así como de la transmisión de dichos valores, cuando procedan de entidades que cumplan los requisitos de participación, de gestión y dirección, y de ingresos que establece el propio artículo. En cuanto a este último requisito, exige que los ingresos de las entidades de los que se obtengan las rentas procedan, al menos en el 85 por 100, del ejercicio de actividades económicas. Y a estos efectos, entiende que proceden de dicho ejercicio las rentas procedentes de la participación en fondos propios de cualquier tipo de entidad y cesión a terceros de capitales propios, así como de la transmisión de dichos valores, que tuvieron su origen en entidades que cumplan, a su vez, los mismos requisitos de participación, directa o indirecta, e ingresos.

Atendiendo a lo anterior, resulta acorde interpretar que para determinar el cumplimiento del requisito previsto en el último inciso del último párrafo de la letra b) del artículo 14.2 de la Norma Foral 2/2014 «(...) cuando los ingresos obtenidos por la entidad participada procedan, al menos en el 80 por 100, de la realización de actividades económicas...», se tendrán en cuenta los dividendos o participaciones en beneficios de otras entidades, así como las plusvalías obtenidas en las transmisiones de participaciones, respecto de las cuales la o el contribuyente tenga una participación tanto directa como indirecta, que cumplan, a su vez, el resto de requisitos a los que se refiere dicha letra b), todo ello a los exclusivos efectos de la regla de la patrimonialidad sobrevenida.

El apartado 3 del artículo 11 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, establece que en el ámbito de las competencias de la Diputación Foral, la facultad de dictar disposiciones interpretativas o aclaratorias de las normas forales y demás disposiciones en materia tributaria corresponde de forma exclusiva a la diputada o al diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas.

En consideración a lo anterior,

RESUELVO

Primero. Esta interpretación resulta de aplicación, en el impuesto sobre sociedades, a los exclusivos efectos de aplicar la regla de la patrimonialidad sobrevenida a que se refiere la letra b) del artículo 14.2 de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y en particular por lo que se refiere a la asimilación de los dividendos y plusvalías a los beneficios procedentes de actividades económicas prevista en el último párrafo de dicha letra, en relación con las estructuras sub-holding.

Segundo. Esta interpretación será, asimismo, aplicable en el impuesto sobre el patrimonio, exclusivamente en relación a la misma regla, tanto para la consideración de si la entidad accede

ko, sozietateen gaineko zergara igortzen zaiolako, bai Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauaren 6. artikuluko laugarren apartatuaren azken bi paragrafoetan aipatzen den salbuespenaren irismena zehazteko.

Hirugarren. Sub-holding egituren kasuan, dibidenduak eta gainbalioak zuzeneko edo lehen mailako filialetatik datozenean exijitzen diren baldintzak zeharka partaidetuta dagoen eta dibidenduak eta gainbalioak azken banatzen dituen entitateari dagokionez ere bete beharko dira. Zehazki:

— Boto eskubideen % 5 izateko baldintza edo, % 3koa sozietate partaidetuaren akzioek bigarren mailako merkatu antolatu batean kotizatzen badute, zeharka partaidetuta dagoen eta dibidenduak eta gainbalioak azken banatzen dituen entitateari dagokionez exijituko da.

— Entitate partaidetuak lortutako diru-sarreraren gutxienez 100eko 80 jarduera ekonomikoetatik etortzeko betekizuna, zeharka partaidetuta dagoen eta dibidenduak eta gainbalioak azken banatzen dituen entitateak lortutako diru-sarrerei buruzkoa izango da.

Laugarren. Honako hauek bakarrik hartzen dira jarduera ekonomikoetatik eratorritako mozkontzat: entitate partaidetuak jarduera ekonomikoak eginez lortutako diru-sarrerekiko, dibidenduek eta gainbalioek hartzen duten zati proportzionala.

Bosgarren. Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 11. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoan oinarrituta, foru agindu honek ondorio lotesleak izango ditu Zerga Administrazioako organo guztientzat «Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN» argitaratzen den egunetik aurrera.

Donostia, 2023ko apirilaren 28a.—Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua. (3164)

a la exención, por remisión al impuesto sobre sociedades, como para la determinación del alcance de la exención a que se refieren los dos últimos párrafos del apartado cuatro del artículo 6 de la Norma Foral 2/2018, de 11 de junio, del impuesto sobre el Patrimonio.

Tercero. Los requisitos que se exigen cuando los dividendos y plusvalías proceden de filiales directas o de primer nivel, en las estructuras sub-holding deberán cumplirse, también, con respecto a la entidad indirectamente participada respecto de la que en última instancia provengan los dividendos y plusvalías. En particular:

— La tenencia del 5 % de los derechos de voto, o del 3 % si las acciones de la sociedad participada cotizan en un mercado secundario organizado, se exigirá en relación con la entidad indirectamente participada respecto de la que en última instancia provengan los dividendos y plusvalías.

— La exigencia de que los ingresos obtenidos por la entidad participada procedan, al menos en el 80 por 100, de la realización de actividades económicas, se referirá a los ingresos obtenidos por la entidad indirectamente participada de la que en última instancia provengan los dividendos y plusvalías.

Cuarto. Únicamente se consideran beneficios procedentes de actividades económicas la parte proporcional de los dividendos y plusvalías que se corresponda con los ingresos obtenidos por la entidad participada que procedan de la realización de actividades económicas.

Quinto. En base a lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 11 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, la presente orden foral tendrá efectos vinculantes para todos los órganos de la Administración tributaria a partir de la fecha de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 28 de abril de 2023.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas. (3164)